

kanta  
zoragarria

Pello Añorga





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)

PELLO AÑORGA

kanta zoragarria

Errege Federiko Handia bizi zen gaztelu batean, dena urrezkoa, muino baten gainean eraikia, toki ahaltsua bera, edonork amestekoa. Denetik omen zeukan: urrezko egongelak, urrezko dorre altuak, urrezko harresi gotorra, urrezko zubi altxagarria, urrezko arma-patioa, urrezko kapera, urrezko ur-putzua, urrezko lubanarroa... Zer ez! Halere, denetik eduki arren, errege Federiko Handiak ez omen zekien zer egin; denetik eduki arren, ez omen zen zoriontsu.

Hortaz, azti batengana jo eta galdetu zion:

—Zer egin behar dut zoriontsu izateko?

Aztiak berehala eman zion ihardespena:

—Zoriontsu izateko, errege jauna, kanta zoragarria aurkitu behar du berorrek.

Errege Federiko Handia nahiko zahartuta zegoen, eta ez omen zuen joan nahi mundutik kanta zoragarria aurkitu gabe, eta han bidali zituen mezulariak norabide guztietara, kantaririk onenak aurki zitzaten. Aurkitu ere aurkitu zituzten, ezinago apartak, inon ziren onenak, eta denak entzun zituen erregeak, banan-banan, txandan-txandan. Alabaina, erregearen iduriz, kanta haiek ez ziren zoragarriak, eta ziztu batean bidali zituen kantariak aldamenetik.

Eta zerbitzariei galdetu zien:

—Kanta zoragarria ezin ahalko didazue aurkitu?

Zerbitzariak eginahalak eta bost egin zituzten kanta zoragarria aurkitzeko, baina ezin. Eta erregeak, besterik ezean, aztiarengana joanda, aholkua eskatu zion berriro. Eta aztiak ihardetsi:

—Bada, zoriontsu izateko, errege jauna, berorrek aurkitu beharko du kanta zoragarria.

—Neronek aurkitu?

Eta erregea geratu zen ez zekiela zer esan, gutxiago zer egin, erabat durduzatuta. Dena den, adinean sartuta zegoenez, eta hil aurretik ezagutu nahi zuenez kanta zoragarria, hobeto pentsatu eta, egun batzuen buruan, erabaki irmoa hartu zuen: berak aurkitzea kanta zoragarria, berak bakarrik, kosta ahala kosta.

\* \* \* \*

Urrezko koroia ipini, urrezko armadura jantzi eta han abiatu zen kanta zoragarriaren bila, urrezko ezpata zorrotza lagun, zerbitzariez inguratuta, zalditeria saldoa barne. Eta ibili eta ibili eta ibili, zeharkatu zituen hala lautadak nola mendiak, hala bailarak nola herriak; baina kanta zoragarriak ez zuenez aurkitzen, basamortua bera ere gurutzatzea deliberatu zuen.

Hura pesadunbrea!, egarriaren egarriz zerbitzari asko hil egin zitzaion basamortuan eta zalditeria erdiraino murriztu. Zorionez, ezbeharrak ezbehar, basamortua gurutzatzea lortu zuen eta iritsi zen lurralde oparo batera. Ortzadarra agerian zegoen ortzi zabalean eta

kolorezko izpiak bidali zizkion errege Federiko Handiari, ongi etorri modura: zirela gorriak eta laranja, zirela horiak eta berdeak, zirela urdinak, indigoak eta moreak. Hura zen, hura, lurraldea! Hain ederra eta oparoa iruditu zitzaion ezen barneratu egin baitzen lurraldean barrena. Eta ibili eta ibili, leku batera iritsi zen, txoriz betea, basoz zein errekez ziprztindua, ezinago berdea. A zer lurralde oparoa! Instantean bertako txori guztiak bidera atera eta errege Federiko Handiaren aurrean belaunikaturik, ongi etorriari loriatsuen eskaini zioten:

—Ongi etorri izan bedi gure lurraldera, errege jauna.

Diosala egin eta nardoeko perfume gozoak eskaini zizkieten, ahal ziren gozoenak, erreberentzia handiz.

Errege Federiko Handiak hura dena ikusita, aho zabalik geratu zen, miretsita. Txori guztiek pertsona itxura zeukaten, burutik hasita hanketaraino, eta hegan egiten zuten! Hura txori saldoa! Haiek ziren biztanleak eta denetik zeuden: hegazabalak, piripioak, txantxangorriak, birigarroak, guakamaioak, txepetxak, lirak, urretxindorrak, sinsontek, kardinal buru gorriak... zein baino zein ikusgarriagoak! Hura lurralde miresgarria! Han bazegoen zeri begiratu, eta, jakina, errege Federiko Handia geratu zen miraritu. Hain lurralde emankorrik ez zuen inoiz ezagutu eta pentsatu zuen lurralde hartan aurkituko zuela kanta zoragarria, eta berehala galdetu zien biztanleei ea nor zen hango erregea.

—Guk ez dugu erregerik, jauna —izan omen zen erantzuna.

—Ez duzuela erregerik?

Eta bi bider pentsatu gabe, errege Federiko Handiak arrapostu egin zien:

—Neu izango naiz zuen errege.

Eta zalditeriaren laguntzaz berehalaxe bereganatu zuen lurralde guztia; bereganatu ez-ezik, denborarik galdu gabe, eraiki zuen gaztelu bat, eta eraiki urrezko egongelak, urrezko dorre altuak, urrezko harresi gotorra, urrezko zubi altxagarria, urrezko arma-patioa, urrezko kapera, urrezko ur-putzua, urrezko lubanarroa... Eta hesitzea lortu zuen lurralde guztia, basoak, errekek zein mendiak barne, urrezko hesi gotor batez, ezinago altu. Halaxe egin zuen errege Federiko Handiak, halaxe.

Eta bertako errege izan zen, ahalguztidunetan ahalguztidunena.

\* \* \* \*

Alabaina, gertatu zen gertatu, sumindu egin zirela txori bizilagunak. Harresia hain altua eraiki zuen erregeak, hain itxia, hain gotorra, ezen lurraldean ez baitzen ia argirik sartzen, gutxiago ortzirik ikusten: ez izar, ez ilargi, ez eguzki eta ez ezer. Horregatik, biztanle batzuek, egoera hura jasan ezinik, ihesari eman zioten urrezko harresiaz bestaldera; beste batzuek, aldiz, ihesi egin beharrean, mokoak erakutsi eta gerra deklaratu zioten. Gerraren sua agudo piztu zen lurralde osoan eta, erretxina bailitzan, agudo zabaldu zen lurralde guztian barrena. Margo

beltzak margorik ilunena margotu zuen basoan, eta perfume erreak agudo usaingabetu lurraldeko usain gozoa: basoak erre egin ziren, errekak sikatu, mendiak gorritu eta ortzadarra ezkutatu.

Duda izpirik gabe, gerra irabazi zuen errege Federiko Handiak, baina, era berean, galdu; zeren, lipar batez, konturatu baitzen lurraldeak ez zeukala arestian zeukan bizirik, ez kolorerik eta gutxiago oparotasunik. Altxatu urrezko ezpata eta, oihu ikaragarrien bitartez, lurraldea madarikatu zuen:

—Lurralde madarikatua, madarikatua, madarikatua!

Eta berriro, oihartzun gisa, errepikatu egin zituen hitzak:

—Lurralde madarikatua, madarikatua, madarikatua!

Eta behin eta berriro errepikaturik hitz madarikatu haiek, areago sumindu zen.

\* \* \* \*

Eta denbora pasa zen, eta, emeki-emeki, zerbitzariak galduz gainera, zalditeria bakandu zitzaion; halako eran, non errege Federiko Handia gero eta bakartuago sentitu zen, gero eta ezdeusago, ezinduago. Hura madarikazioa! Eta esan zuen etsituta:

—Kanta zoragarria ameskeria baino ez da izan.

Eta egin zen gaixotu.

—Zertarako bidaiatu dut horrenbeste? Zertarako egin dut gerra? Zertarako eraiki hesia? Zertarako altxatu gaztelu berria?

Eta hain gaixotuta sentituta, eta hain ezinduta, urrezko logelara joan, ohean sartu eta, hilurren, aztiaren laguntza eskatu omen zuen.

Lurralde hartan, ordea, aztirik ez zegoenez, andere bat azaldu omen zitzaion laguntza ematera, tunika zuri batez jantzita, oinutsik, guztiz alegera: andere Txoriketaria. Gandor bat omen zeukan buruan andereak, luzea, ile zuri-beltzez hornitua, ezinago argia; paparrean, berriz, luma laranjatuak zeramatzan, zein baino zein distiratsuagoak. Errege Federiko Handiaren ohe aurrean belaunikatu, moko luzea luzatu eta, diosala eginez, nardoeko perfume gozoak eskaini zizkion, ahal ziren gozoenak, erreberentzia handiz. Eta mintzatu egin zitzaion:

—Errege jauna, lurraldea madarikatu beharrean, zergatik ez du aurkitzen berorrek kanta zoragarria?

Errege Federiko Handia, nahiz eta gaixotuta egon, harrituta geratu zen anderearen hitzekin:

—Kanta zoragarria?

Eta begiak ernaturik, galdetu zion:

—Zuk ezagutzen al duzu kanta zoragarria?

Andere Txoriketariak soseguz ihardetsi zion:

—Ezagutuko ez dut, bada! Hemengo Txoriketaria naizenez, ondotxo ezagutzen ditut lurralde honetako kantak.

Erregeak azkar adierazi zion, irrikatsu, gaixotasunaz ahaztuta:

—Ekar egidazu kanta zoragarria; ordena ematen dizut. Entzun egin nahiko nuke hil baino lehen.

Andereak klarki arrapostu zion:

—Urrezko hesiaz bestaldera joan beharko dut.

Errege Federiko Handiak eman zion agindu irmoa:

—Lehenbailehen joan zaitetz eta ekar egidazu kanta zoragarria.

Anderea konforme. Nardozko perfume gozoa zabaldu eta, erregearen aurrean belaunikaturik, zin egin zion:

—Biharko ekarriko diot kanta zoragarria.

\* \* \* \* \*

Urrezko kaiola hartu, urrezko sarea bereganatu eta han abiatu zen andere Txoriketaria. Eta joan eta joan, urrezko harresiaren bestaldera iritsi zen: urkidi batera. Ortzi zabala ederki ikus zitekeen bertatik eta baita zoragarri entzun ere txorien kantak. Urki baten ondora hurbildu eta gauza bat egin zuen: gandorreko ileak askatu, zuri-beltzak, luzeak, eta, banan-banan, lotu zituen urkiaren adar bati, sosegu handiz, ezinago argi. Urki adarra okertu, ile luzeak tenkatu eta sortu zuen ikusgarrizko harpa, zuri-beltza: miresgarria. Eta, besterik gabe, jotzen hasi zen ortzi zabalari begira. Hain minbera eta xaramelatsu, ezen, segituan, txori bat hurbildu baitzizaion: birigarroa. Andereak ahots eztiz xuxurlatu zion:

“Xirula-xiruli, kanta zoragarri guri”.

Eta zoragarri kantatu omen zuen birigarroak, urkiaren puntaren puntan. Andere Txoriketaria, orduan, zuhaitzera igo, urrezko sarea zabaldu, birigarroa harrapatu eta, urrezko kaiolan sartuta, eraman zuen errege Federiko Handiaren aurrera, urrezko logelara.

Federiko Handiak, birigarroa ikusi ahala, ohetik eman zion agindua:

—Kanta ezazu kanta zoragarria.

Birigarroa, maleruski, kikildu egin zen urrezko logelan, urrezko ezpata zorrotzaren aurrean. Behin eta berriro kanta zezala agindu zion errege Federiko Handiak; baina birigarroa mutu geratu zen.

Hortaz, errege Federiko Handiak madarikatu egin zuen anderea:

—Madarikatu alaena, hau al da kanta zoragarria?

Andereak eztiki erantzun zion:

—Zoragarri kantatzen du txoriak, errege jauna, baina mutu geratu da berorren aurrean.

Federiko Handiak agindu egin zion:

—Zoaz berriro, eta ekar egidazu lehenbailehen kanta zoragarria.

Eta gaixotuta egon arren, zorrotzasunez gaineratu:

—Biharko ez badidazu ekartzen, zureak egin du.

Eta han joan zen berriro andere Txoriketaria kanta zoragarriaren bila. Urrezko harresiaren bestaldera igaro, urkidira iritsi eta jo zuen erreka baten ondora. Bero egiten zuen eta pentsatu zuen erreka hurbilduko zirela txoriak freskatzera. Eta hala, erreka joanik eta uraren murmurioa entzun zuelarik, jotzen hasi omen zen harpa, xaramelatsu. Hain xaramelatsu ezen agudo hurbildu baitzitzaion txori lotsagabe bat: txepetxa. Andereak xuxurlatu zion:

“Xirula-xiruli, kanta zoragarri guri”.

Txepetxak buztana mugitu, harparen gainean pausatu, eta kantatu zuen zoragarri. A zer kanta! Orduan, andere Txoriketariak harrapatu, urrezko kaiolan sartu eta berehala eraman zuen erregearen aurrera. Tamalez, txepetxa ere mutu geratu zen urrezko ezpata zorrotzaren aurrean. Baina, lotsagabea zenez, kikildu beharrean, hegaldatu eta, batere lotsarik gabe, kakazirina egin omen zuen errege Federiko Handiaren koro gainean. Hura atrebimendua! Eta Federiko Handia sumindu:

—Txori alaena! Madarikatua!

Ohetik altxatu, andereari begiratu eta, ezinduta, suharki mintzatu zitzaion:

—Zer madarikazio da hau?

Eta agindu mingotsa eman zion:

—Lepoa moztuko dizut instantean.

Andere Txoriketaria belauniko jarri zen. Nardoeko perfumerik gozoena eskaini eta erregutu zion beste aukera bat emateko, hirugarren aukera, azkena.

Erregeak gordin eman zion erantzuna:



—Ongi da, zoaz berriro; baina, azken aukera izango duzu. Oraingoan, ez badidazu ekartzen kanta zoragarria, lepoa moztuko dizut.

Andere Txoriketaria han joan omen zen berriro kanta zoragarriaren bila. Hesiaz bestaldera igaro, eta pentsatu zuen erre kara baino hobea izango zuela mendia igotzea, kantak argiago entzungo zituela mendiaren gainean. Eta harantz jo zuen. Alabaina, mendiaren gainera iritsi zelarik, gau egin eta, txoriak lotara joan zirenez, kantarik gabe geratu zen. Eta pentsatu zuen:

—Zer egingo dut orain? Erregeak lepoa moztuko dit!

Eta deliberatu zuen ihes egitea. Agudo, baina, ihes egiteari muzin egin eta erregearengana joatea erabaki zuen.

—Egia esaten badiot, agian, ez dit lepoa moztuko; beste aukera bat emango dit.

Eta han joan zen erregearengana. Maleruski, erregeak ikusterakoan kaiola hutsik zekarrela, sumindu egin zen, ernegatu, amorratu, odolberotu. Ohetik zutitu, eta brauki eman zuen ordena:

—Bihar goizean lepoa moztuko dizut.

Eta andere Txoriketaria preso sartu omen zuen urrezko presondegian.

\* \* \* \*

Gotorra zen urrezko presondegia eta, batez ere iluna, oso iluna, eta anderea geratu zen ez zuela ezer ikusten. Bertatik bertara ezin zezakeen ezer bereizi eta, lipar batez, geratu zen itsututa, noraezean, hormen artean harrapatuta. Ordea, emeki-emeki, iluntasunera ohitzen hasi zelarik, bistatu zuen urrezko leihatila bat, urrezko barrez eraikia, argi-zirrinta batekin. Eta sosegatu egin zen. Nahiz eta jakin lepoa moztuko ziotela, arnasa hartu eta, argiari begira, adoretu mintzatu zen:

—Lepoa laster moztuko didate, baina ez naiz kikilduko.

Eta ez zen kikildu. Buruko ile luzeak askatu eta lotu zizkion urrezko barrei, sosegu handiz, ezinago argi. Eta hala egon zen denbora luzean. Gero arnasa hartu eta, belaunikatuta, leihatilako argiari begiratu, harpa miresgarria sortu, eta jotzen hasi omen zen, jo eta jo, kanta eta kanta. A zer kanta! Eta erregearen belarrietara iritsi omen zen kanta, hilurren zegoela, urrezko logelara.

—Baina, zer gertatzen ari da hemen? —galdetu zuen erregeak, amets txar batetik esnatu izan balitz bezala— Zer da kanta hau? Zer madarikazio?

Ohetik jaiki eta erregea, ozta-ozta, urrezko patiora irten zen erantzuna aurkitu nahian, nahiz eta oso gaixo egon. Urrezko patioan, ordea, ez zuen ezer aurkitu, txoriak salbu. Txoriak saldoka zebiltzan, anderea preso zegoen leihatilaren ondoan... eta kantuan ari omen ziren guztiak!

Erregeak madarikazioa bota omen zuen oihu ikaragarri baten bitartez:

—Lurralde madarikatua, madarikatua, madarikatua!!!

Eta hitzok behin eta berriro errepikaturik, instantean erabaki zuen lepoa moztuko ziola andere Txoriketariari. Eskuetan hartu urrezko ezpata zorrotza eta, ezinduta egon arren, joan zen urrezko presondegira. Alabaina, sartu ahala, aho zabalik geratu zen: harpa jotzen aurkitu omen zuen anderea!, harpa zuri-beltza, miresgarria, jo eta jo, kanta eta kanta, era harrigarrian, txoriz inguratuta: zirela hegazabalak zein piripioak, txantxangorriak zein birigarroak, guakamaioak, txepetxak, lirak, sinsontek, kardinal buru gorriak... Eta zur eta lur geratu omen zen erregea, erabat estonatu, begiak diz-diz.

—Mila tximista eta trumoi!

Eta alde batera utzirik urrezko ezpata, belarria luzatu eta, entzun ez ezik, ikusi ere ikusi zuen ortzian nola zabaltzen ziren ortzadarraren izpiak: zirela gorriak eta laranja; zirela horiak eta berdeak; urdinak, indigoak, moreak... eta zer nolako kanta sortzen zen presondegiaren erdian, zoragarrienetan zoragarriena.

Eta esan zuen miraritura:

—Hau bai dela zoragarria!

Alabaina, supituan, andere Txoriketariak kanta eten zuen. Erregeari begiratu eta adoretzu mintzatu zitzaion:

—Nire lepoa moztera etorri al da berorri?

Errege Federiko Handia harrিতuta geratu zen:

—Zure lepoa moztera?

Eta egin zen durduzatu:

—Kanta zoragarria aurkitu dut-eta! Azkenean aurkitu dut! Aurkitu dut!

Andere Txoriketariak esan zion:

—Berorrek aurkitu baldin badu kanta zoragarria, bada, kanta beza orain.

Errege Federiko Handiak ez zekien zer esan. Inoiz ez omen zuen kantarik kantatu; are gutxiago kanta zoragarria. Eta ihardetsi zion:

—Nik ez dakit kantatzen.

Andere Txoriketariak eztiki arrapostu zion:

—Nire harpa miresgarriaz ederki kantatuko du berorrek.

Ile luzea lurreraino askatu eta, harpa miresgarria eskuetan, xuxurlatu zion:

“Xirula-xiruli, kanta ezazu zoragarri guri”.

Eta errege Federiko Handia, besterik gabe, bat-batean, zoragarri kantatzen hasi omen zen. Hain zoragarri ezen eskuetan zeraman ezpata zorrotza utzi, urrezko armadura erantzi eta hegan hasi baitzen andere Txoriketariaren bizkar gainean, ortzi zabalean barrena, hegan eta hegan, kantari eta kantari, gaixotasunaz ahaztuta.

Eta hegan eta hegan, kantari eta kantari, soinu bortitz bat entzun zuen lurralde guztian barrena, trumoi zaratatsuaren antzekoa. Supituan, urrezko muraila altua eraitsi, margo beltza desagertu, eta perfume gozoa baino ez omen zen zabaldu lurralde guztian barrena. A zer kanta zoragarria zen hura!

Eta hegan eta hegan, kantari eta kantari, muino batera iritsita, ikusi omen zuen urrezko gaztelua inoiz baino ederragoa: urrezko zubi altxagarria, urrezko egongelak eta altuera handiko urrezko dorreak, ondotxo ezagutzen zituenak. Urrezko kaperan sartu eta arrania!, txoriak ikusi omen zituen urrezko tronuan eserita: hegazabalak, piripioak, sinsonteak, kardinal buru gorriak, guakamaioak, txepetxak, lirak, hontzak, argi-oilarrak..., eta kantari hasi omen ziren denak, errege Federiko Handiarekin batera, zoragarri.

\* \* \* \*

Eta kanta eta kanta, loriaren loriaz, errege Federiko Handia hil egin omen zen. Hain zoriontsu, ezen gazteluak izen berria hartu baitzuen: KANTA ZORAGARRIA.